

## **IV. MBA EXECUTIVEaren amaiera ekitaldia Gipuzkoako Bazkundearen eta Mondragon Unibertsitatearen eskutik**

- *Pedro Esnaola, Gipuzkoako Bazkundeko Presidentea eta Iosu Zabala, Mondragon Unibertsitateko Errektorea izango dira ekitaldiaren buru. Titulu banaketa gaur arratsaldean egingo da Gipuzkoako Bazkundean.*
- *Executive MBA 520 orduz osatu da, urte bete iraun du eta eskolak Gipuzkoako Bazkundean eman dira. Kurtsoa 15 ikasleek osatu dute.*

**Donostian, 2014ko maiatzaren 8an.** Gipuzkoako Bazkundeak eta Mondragon Unibertsitateak MBA Executivearen IV. ekitaldi amaiera burutuko dute gaur, Gipuzkoako Bazkundean. Masterra 2009an jarri zuten martxan aipatutako bi entitate hauek. Pedro Esnaola, Gipuzkoako Bazkundeko Presidentea eta Iosu Zabala, Mondragon Unibertsitateko Errektorea arduratuko dira Tituluak banatzeaz. Kurtsoa gainditu duten 15 ikasleek jasoko dute titulua.

Masterra lortu duten ikasleak 30 eta 47 urte bitartekoak dira. Industria mailako enpresetan eta zerbitzu enpresetan aritzen dira batibat eta ardura handiko postutan burutzen dute euren lana. Guztiek esperientzi profesinal zabala dute eta prestakuntza akademiko diferentea jaso dute Industria mailako Ingenieritzan, Enpresen administrazioan, Zuzenbidean, Filologian, Biokimikan edoeta Informatikan.

Masterran parte hartu duten ikasleek, Finantza, Estrategia, Marketinga, Eragiketak, Pertsonak... hau da, enpresaren alor funtzionalak ikasteko eskolak jaso dituzte, eta era berean eurak enpresak zuzentzeko dituzten abileziak landu dituzte. Une oro diziplina anitzeko irakasleak izan dituzte alboan, unibertsitateko, aholkularitzako eta enpresetako esperientziak eta ikuspuntuak konbinatuz.

### **Helburuak**

Executive MBAk enpresen ikuspegi osoa erakustea eta arlo eraginkorrenak nola funtzionatzen duten azaltzea du helburu. Baita, berrikuntza bultzatzea eta norbanakoaren izaera pertsonala eta profesionala aldatzea lidergoa garatu ahal izateko, bakoitzak dituen gaitasunak eta abileziak kontutan hartuz. MBA Executiveren

beste helburuetako bat erakundearen funtzio ezberdinak kudeatzeko aukera ematen duten kontzeptuak indartzea eta eguneratzea da, kultura eta nazioarteko testuinguru anitzak kontutan hartuz.

### **Balorazio baikorra**

Gipuzkoako Bazkondeak eta Mondragon Unibertsitateak elkarrekin antolatzen duten laugarren master honen balorazioa baikorra izan da. Elkarrekin lan egiten jarraitzea da bi entitate hauen helburua, enpresetako profesionalen heziketaren bitartez Gipuzkoako enpresak indartzeko. Bostgarren edizioa martxan da une honetan. Eta edizio hau ere ararrakastatsua izaten ari da.

Horrez gain, Gipuzkoako Bazkondeak eta Mondragon Unibertsitateak elkarrekin lan egiteko akordioa berritu dute eta urritik aurrera MBA EXECUTIVEaren seigarren edizioa jarriko dute martxan, enpresetako zuzendarien eta profesionalen artean oso ezaguna den graduondoa. Hilaren 22an, VI. edizioaren inguruko informazio saio bat antolatuko da, eta izen emateko epea irekiko da. 2014-2015 kurtsoan izen emateko epea, alegia.

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Irene Bengoetxea

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

943 000 310 / 688884347